



Korpusetako prozosiñua Naparreneko kantoian

Berrogetamar urtetik gora dakogunok ondo gogoraketan gara Korpus eguneko prozosiñua gaur egunekua baiño dezente luziagua izaten zala. Beheko partian Arrazolaneko kantoian emuten eben bueltia, Ikasola kaletik (oraingo Madina) Kale Zaharrian gora jarraitetako. Lizaur kalia 1960 aldera zabaldu zanian, agustiñoetako eliziaren parian hasi zan gorako bidia hartzen.

Goialdian, berriz, Naparreneko kantueraiño ailegaitten zan, handik Itturritxo eta Atzeko kalera pasaitteko. Orain, dakitzue-nez, Kirriñeneko kantoian ekitten xao beherunzko martxiari. Aldaketiori 1970ko hamarkadako lehenengo urtietan burutu ei zan, baiña ezta kigu ziur noiz. Norbait akordaitten da?

Gaurko fotografixan antxiñako ibilbidia agerketan xaku, Naparreneko kantoittik Itturritxoko plazatorako zatixa, hain zuzen be. Hortxe bertan egoten zan altara bat, Urrutxuneko etxiaren aurrrian. Prozosiñua geldittu eta San Migelek bere erreberentzie-tako bat egitten otsan Jaunari bertan. Argazkixa 1960ko hamarkadiaren hasierakua dala pentsaitten dogu, agiri diran pertsonak kontuan izanda. Honeik dira ezagutu ahal izan dittugunak:

- Palixuari eusten: ezkerrian, atzetik aurrera: **Felix Galdos**, *Martoluen*a, antioju illunakin; **Joxe Bikuña**, *Erbiña*; eta **Joxe Mari Arregi**, *Irazabal Txikikua*; eskumatik, aurrrian: **Agustin Beitia**; Santa Krutz errotakua; eta honen atzian, **Joxe Mari** [?] *Urze lai*, *Uriko Garaikua*.
- Palixo azpitan Jaunaren kustodixari eusten diharduana **Oñatiko parroquia** izango da, **Jose Arandia** sasue haretan; aldame- nekua **Benigno Iñarra**, parrokiako abadia, izan leike; eta atzerago **Antonio Aranguren**, laterandarra. Aldamenetako guar- dia zibillak Oñatiko kuartelekuak ziran, ezkerrekua oso ezaguna herrixan.
- Ezkerreko espaloittik doiazenen artetik **agustino laterandar batzuk** identifikaitteko samurrak dira: hiru estudiante lehenen- go: **Kepa Mallea**, Munittibarko bizkaitarra; **Alberto Anduaga**, Auzako naparra; eta **Jexus Agirre**, Olaberriako gipuzkoarra; hurrengo **Jose Luis Lazkanoiturburu** maisua, Kale Zaharrekua; eta atzerago **Rafael Anduaga**, Mendiko kalekua.

Ezta erraza asmaittia zeintzuk diran palixuaren atzetik datozen kontzejukuak. Palixo dotore hori orain dala ehun bat urte erre- galau otsan parrokiari **Maria Andresa Bergarajauregik**, Hipolito Biain enpresarixuaren alargunak.

J. E.

Argazkiko hainbat pertsonen izenak jakittekko argibidiak eskuratu doskue Joxe, Jexus eta Reyes Bikuñak, Erbiñeneko anaiak. Milla esker hiruori!

Oharra: Fan dan hillabeteko fotografixan goiko illarako bigarren emakumia Kasimira Kortabarria zala esaten geben. Baiña zuzen- du biarrian gagoz, **Maria Luisa Ziaran** dalako, Txaiñaneko Faustino Inzaren andria, bergararra jaxotzez eta Oñatiko San Antue kalian bizi izan zana. Eskerrak informaziño hori emutiagatik **Bittori Anduaga**, **Iñazio Inza** eta **Begoña Idigoraseri**.